

1. ERANSKINA: Pre-test eta Post-test

BELAR ETA LORE ESKOLAN

Belar eta Lore zazpi urteko bi animalia dira, Bilbon bizi dira eta Ikaslide ikastetxean ikasten dute, lehenengo mailan.

Belar lehoi bat da eta ile marroia eta horia du. Lore tximino bat da, luztan luzea eta sabel arrosa duena. Klasean elkarrekin daude eta lagun minak dira, baina zeharo ezberdinak. Jakin nahi duzue zergatik? Goazen ikustera!

Belar lehoiari asko gustatzen zaio klaseko lagunekin jolastea, baina berak ez duen duenera jolatu behar da beti, bere ikaskideen iritziak eta gustuak kontuan hartu gabe.

Lore tximinoak ere bere lagunekin jolastea maite du, baina ikaskideei zertara jolatu nahi duten galdetzen die beti, iritzi eta proposamen guztiak errespetatuz.

1. Eta zuki, zure lagunekin jolasten duzunean, nola egiten duzu? Belar edo Lore bezala?



Gainera, Belar lehoiak bere lagunekin eztabaidatzen duenean, irakaslearengana edo nagusi batengana doa beti, gertatu zaiona kontatu eta maiu-maistrak arazoa elazteko zain geratzen da.

Lorek, ordea, lagunekin arazoren bat duenean, irakaslearengana joan baino lehen, lagunarekin konpontzen saiatzen da. Horretarako, haiekin hitz egiten du eta besteek iritziak entzuten ditu, irakaslearen beharrik gabe.

2. Eta zuki, lagunarekin eztabaidatzen duzunean, nola egiten duzu? Belar edo Lore bezala?



Belar, gure lehoia, klasera sartu eta iritien da egun on, arratsalde on eta agur eman gabe. Gainera, ez du baimena eskatzen egin nahi dituen gauzetarako, nahi duen bezala jarduten du beti.

Lore tximinoak norbaitekin elkaritzen denean, beti agurtzen du, eta zerbait behar edo nahi duenean, baimena eskatzen du, hitz magikoak erabiltzeko: mesedez eta eskerrik asko.

3. Eta zuki, klasera sartzen zarenean eta zerbait behar duzunean, nola egiten duzu? Belar edo Lore bezala?

